

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zaborren tasaren errolda, 2020ko lehenengo hiruhilekoko

Jendaurrean jartzen da 2020ko lehenengo hiruhilekoko zaborren tasaren errolda hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

2020ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (bi horiek barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren ordainagiriak, (2020ko lehenengo hiruhilekokoak).

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko errekararekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; errekaru hori bateragarria da luzapen errekararekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2020ko otsailaren 24a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES